



**Hiztegitxoá**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>abagune</b> 'aukera, une aproposa'	"Etorriko da <b>abagune</b> hoberik."	32
<b>abegikor</b> 'harrera ona eman zalea'	"...lagun filipinarra eta brasildarra ez dira oso <b>abegikor</b> ageri."	18
<b>ahalke</b> 'lotsa'	"Janezinak zirenak ere, <b>ahalkez</b> , guri begira zeuden 180 begi ilunen aurrean jan behar izan ditugu."	61
<b>ahitu</b> 'agortu'	"...gazte-aterpetxean mando hilak bezalatsu gaude, <b>ahituak</b> ."	17
<b>aje</b> 'ostea, biharamuna'	"Bart koadrilako agur afaria gaupasan bukatu zenez, eta gau <b>ajea</b> eta buruko mina ari zaizkigunez orroka, trenean sartu eta lo egiteko irrikan gaude."	10
<b>apika</b> 'agian'	"...gazte-aterpetxeak aurkitzeko sistema ez metodikoan sinesmen osoa baitauek; <b>apika</b> sinesmen osoegia."	50
<b>apopilo</b> 'ostatu bateko bezeroa'	"... <i>please open</i> deiadarka eta leihoetara harriak boteaz lortzen dugu <b>apopilo</b> guztiak iratzartzea..."	18
<b>arakatu</b> 'miatu'	"Haserre begirada bota diot; halere, ez dago adi, leihotik iluntasuna <b>arakatuz</b> doa."	73
<b>artz</b> 'gutziz garbia'	"Neska garbiak eta <b>artzak</b> ditu gogoko."	58
<b>arrakalatu</b> 'zartatu, pitzatu'	"...baina tximistak mendi tontorretan lehertzen dira eta trumoi burrunba handiek <b>arrakalatzen</b> dute airea."	69
<b>arranopola</b> 'araioa'	" <b>Arranopola!</b> Kabroi halakoak gure irteeren pasadizoak eta xehetasunak idatziz jasotzen zituen."	8
<b>arteka</b> 'zirrikitia'	"Bat-batean, argia ikusi dugu: txartelezko giltza <b>artekatik</b> ateraz gero ez dago argirik ez telebistarik."	44
<b>asaldatu</b> 'aztoratu, durduzatu'	"Tentsioa galdu dugu eta lasaiegi gaude, daniar neska puskek ere ez gaituzte <b>asaldatzen</b> ."	38
<b>astakirten</b> 'astapotro'	" <b>Astakirten</b> haietatik bakar batek ere ez zuen kaka balio."	64
<b>ataka larri</b> 'trantze txarra'	" <b>Ataka larria</b> da; odol bor-bor irakiten daukagu..."	25
<b>azaburu</b> 'memeloa'	"Afalordua etorri delako isildu da boskote abeslari nazkantea. Hiz egiteari utzi gabe otartekoak jateko abilezia daukate <b>azaburuek</b> ."	64
<b>baba</b> 'urbatua, handitu mingarria'	"Ikaragarriko <b>babak</b> atera zaizkigu oinetan dagoeneko."	21
<b>bapo egin</b> 'asebete'	"...guk <b>bapo egingo</b> dugu neska europarrak ezagutzen."	10
<b>bart</b> 'aurreko gaua'	" <b>Bart</b> koadrilako agur afaria gaupasan bukatu zenez, eta gau ajea eta buruko mina ari zaizkigunez orroka, trenean sartu eta lo egiteko irrikan gaude."	10
<b>bekozko</b> 'aurpegi txarra'	"Azkenik, harrerako neskarengana kexatzera jaitsi gara, eta hark <b>bekozkoarekin</b> azaldu digu txartelezko giltza arteka batean sartu behar..."	43
<b>bero sapa</b> 'bero ikaragarria'	"Venezia ikusgarria eta berezia izan arren, horrenbeste turista eta <b>bero saparekin</b> etsigarria zaigu."	101
<b>bilinbolaka</b> 'txiribuelbaka'	"...eta hamaika ahalegin egin behar ditu nire gainera <b>bilinbolaka</b> ez erortzeko. Ni behe-behean nago, zirkinik egin gabe..."	69
<b>bolondres</b> 'boluntarioa'	"Harrerako neskari laguntza eskatzeko ez dago <b>bolondresik</b> ."	44
<b>builaka</b> 'zarataka'	"Autobusak ez dauka aire egokiturik, jendeak <b>builaka</b> hitz egiten du eta niri klaustrofobia eta itomena sartzan zait."	88
<b>burruntzi</b> 'mariorratza'	"Montseren antzera kasu egin digutenez, hunkitu egin gaituzte, eta <b>burruntzien</b> gisara itsatsi gatazkie."	100



<b>butxatu</b> 'ataskatu'	"Zer gerta ere, gure amarruari egiatzotasuna emateko, komun-ontzia paperez bete eta <b>butxatu</b> egiten dugu..."	12
<b>dakusagu</b> 'ikusten dugu'	"Teleferikoan behera Alpeko animalien zooa <b>dakusagu</b> ."	71
<b>darraite</b> 'jarraitzen dute'	"Nire ohean ez dute izara aldatu oraindik eta azkazal nazkagarriek hor <b>darraite</b> ."	52
<b>deitoratu</b> 'arbuiatu'	"Josunerengana jotzearen erabakia <b>deitoratzen</b> hasi gara."	30
<b>demaseko</b> 'gehiegizkoa'	"Bost aterpetxetara deitu dut eta nire ingeles totelarekin <b>demaseko</b> buruhausteak izan ditut nahi nuena aditzera emateko."	39
<b>demontre</b> 'arraioa'	"Hala ere, zer <b>demontre</b> , koadrilako adiskideekin alderatuta, gu gara kosmopolitenak."	10
<b>diosala egin</b> 'agurra luzatu'	"Leihotik kanpora begira dabil isil-isilik eta ez digu <b>diosalik egin</b> ."	73
<b>dioskute</b> 'esaten digute'	"Alabaina, tren geltokiko informazio bulegoan <b>dioskute</b> gazte aterpetze ofizialetan ez dela ohe bakar bat ere libre geratzen."	102
<b>dolu</b> 'bihotzmina'	"Derrigorrean, gazte-aterpetxe fantasmara doan azken metroa hartzen dugu, burumakur parranda <b>dolutan</b> ..."	52
<b>edozelan</b> 'edozein modutan'	"Bart Praga osoa zeharkatu genuenez, eta, <b>edozelan</b> , gazte-aterpetxetik alde egin nahi genuenez, tren geltokira goaz, hurrengo destinoaren hautua egitera."	54
<b>egarriak egon</b> 'egarri izan'	"Mingaina garretan eta izerdi sufrikarioan elikatzen gara. <b>Egarriak gaude</b> , baina denda batean erosten dugun ura gaseosa da..."	56
<b>emagaldu</b> 'puta'	"Apurka-apurka, gure inguruan ditugun bikote lerdan horiek guztiak <b>emagalduak</b> direla susmatzen dut."	57
<b>epelak bota</b> 'errieta gogorra egin'	" <b>Epelak botako</b> dizkit hala ere itzuleran."	38
<b>erdietsi</b> 'lortu'	"...udalekuko arduradun tristeak bungalow triste bat alokatzea <b>erdiesten</b> dugu."	61
<b>errementatu</b> 'leher eginda, guztiz nekatuta'	"Behintzat, gatazkari esker, nekearen nekez <b>errementatuta</b> gaude lotarako."	89
<b>erreskadan</b> 'iladan, bata bestearen atzetik'	"Lagun filipinarrak alarma guztiak aditu ditu <b>erreskadan</b> , eta gure gorputzak bortizki astinduz iratzartzen gaitu."	19
<b>erretreta jo</b> 'atzera egin'	"...eta une batean arrainez inguratuta ikusi dut neure burua. <b>Erretretaren</b> turuta <b>jo</b> dut."	93
<b>eskopeta garbitu</b> 'kanpaia jo'	"Argi dago nire aurreko bisitaria bere <b>eskopeta garbituta</b> baina eskuak zikin atera dela."	23
<b>gaita onean</b> 'umore oso txarrean'	" <b>Gaita onean</b> iritsi gana Munichera. München turismo zerbitzuko alemaniar eraginkortasunak laster lagundu digu lotarako gazte-aterpetxea kausitzen."	66
<b>garizuma</b> 'aste santu sasoi'	"Egonaldia <b>garizuna</b> baino luzeagoa egiten ari zaigu."	60
<b>gazitatu</b> 'jakinarazi'	"Pizgailuaren hotsak hurrengo piztu duela <b>gazitatu</b> dit."	73
<b>goibel</b> 'triste'	"Neska-mutilek aurpegi zurbilak eta begirada <b>goibelak</b> dituzte."	61
<b>gorazarre</b> 'omenaldia'	"Hileta elizkizunean, haren oromenari <b>gorazarre</b> egin beharrean, beste kezka batzuk nagusitu zitzaizkidan eta ez nuen negar malkorik isuri."	7
<b>harribitxi</b> 'perla'	"...Susanita tiene un raton' bezalako <b>harribitxiak</b> ."	64
<b>hautu</b> 'aukera'	"Bart Praga osoa zeharkatu genuenez, eta, edozelan, gaze-aterpetxetik alde egin nahi genuenez, tren geltokira goaz, hurrengo destinoaren <b>hautua</b> egitera."	54




<b>hieratiko</b> 'espresio gabea'	"...lehenago horditutako neskatarako adorea geureganatzeko, eta, bide batez, euskaldunoi dagokigun estatua <b>hieratikoaren</b> ospea ekiditeko."	108
<b>hits</b> 'tristea'	"Igandea da, abuztuak 15, hortaz jaiegun bikoitza, eta Munich Hungariako landalurra dirudi; huts eta <b>hits</b> ."	67
<b>horditu</b> 'mozkortu'	" <b>Horditu</b> xamar dago eta istorio bat kontatu digu kroazieraz."	97
<b>idiliko</b> 'ametsetakoa'	"Danimarkako herri polit <b>idiliko</b> batean garatu gara."	35
<b>ihardetsi</b> 'erantzun, arrapostu'	"Ezezkoa <b>ihardesten</b> diot, arrazoi pragmatikoengatik: Berlinen izanak garelako eta bertako abenturak ez zirelako gozoak izan..."	49
<b>imintzio</b> 'keinua'	"...gure komunikazioa keinu, zeinu eta <b>imintzio</b> klase guztien bidez gauzatzen da."	47
<b>in crescendo</b> 'gero eta handiagoa'	"Jonek eta biok <b>in crescendo</b> komentatu diogu elkarri gure amorrua, tabakofobia eta xenofobia zatiak elkartrukutzen."	74
<b>inuzente</b> 'kokoloa'	"Aro aurre-digital hartan bidaiatzea zaila zen, eta gure tamainako bi <b>inuzente</b> hasiberrientzat are eta zailagoa."	8
<b>ipotx</b> 'nana'	"Interlakenetik Grindenwald postaletako herrira igo gara: <b>ipotxen</b> egurrezko etxeak, zelaletako belarra..."	79
<b>iratzarri</b> 'esnatu'	"Baionan familia batek gure gelatxoa inguratu du eta <b>iratzarri</b> egin gaituzte..."	10
<b>irrikan</b> 'gogo biziarekin, desiratzen'	"Bart koadrilako agur afaria gaupasan bukatu zenez, eta gau ajea eta buruko mina ari zaizkigunez orroka, trenean sartu eta lo egiteko <b>irrikan</b> gaude."	10
<b>irriño</b> 'barre txikia'	"Jonek etengabe bidaltzen dizkio <b>irriñoak</b> japoniar ederrari, eta eraso estrategia bat nola bideratu hausnartzen du."	48
<b>isuri</b> 'jariatu'	"Hileta elizkizunean, haren oromenari gorazarre egin beharrean, beste kezka batzuk nagusitu zitzaizkidan eta ez nuen negar malkorik <b>isuri</b> ."	7
<b>itaundu</b> 'galdetu'	"Susmo txarra hartu du, eta treneko beste langileei <b>itauntzeko</b> ..."	12
<b>jendaila</b> 'jendilajea, pertsona txarrak'	"Kale iluna emigrante gaizkile <b>jendailaz</b> betetzen ari dela iruditzen zaigu..."	18
<b>kakaztu</b> 'kaka eginda, beldurtuta'	"...urduritasunak <b>kakaztuta</b> zegoen. Salbazioa izan zitekeen norabaitera joateko aukera agortzen ari zen; bere patua jokaldi bakarrean jokatu..."	76
<b>kalapita</b> 'iskanbila'	"Kirats eta <b>kalapita</b> baldintza horietan, nola begiak itxi?"	11
<b>karlintxakur</b> 'autoetako txakur plastikozkoa'	"Gu, berriz, badirudi nagusiaren aginduetara dauden <b>karlintxakurrak</b> garela..."	86
<b>kausitu</b> 'topatu'	"Gaita onean iritsi gana Munichera. München turismo zerbitzuko alemaniar eraginkortasunak laster lagundu digu lotarako gazte-aterpetxea <b>kausitzen</b> ."	66
<b>kazkabar</b> 'sotorra'	"Ekaitza pasa da, baina <b>kazkabarra</b> eta kontrako haizea ari du gogotik."	14
<b>kisketa</b> 'sarraila'	"Zer gerta ere. bungalowko atea <b>kisketaz</b> ixten dugu eta bungalow ondoan soka bati kanpai txiki bat lotzen diogu..."	62
<b>kitatu</b> 'ordaindu'	"Lo zorrak <b>kitatuko</b> ditugu behintzat."	35
<b>kokoriko jarri</b> 'belaunen gainean makurtuta'	"ezen bi autoren arteko txokoa bilatzen dudana, <b>kokoriko jarri</b> eta gizateriaren 'ondare' berri bat uzteko."	78
<b>koroa</b> 'bureztuna'	"Moralak altu daukagu, Norvegiako <b>koroaren</b> jauna eta jabe sentitzen gara!"	43
<b>kosmopolita</b> 'hiritarra'	"Hala ere, zer demontre, koadrilako adiskideekin alderatuta, gu gara <b>kosmopolitenak</b> ."	10




<b>lausengatu</b> 'balakatu'	"Akaso larrugorritan dabilen jendez jositako aterpetxe batera garmatza, non neska gazteek sexu zikinaz <b>lausengatzen</b> dituzten motxiladunak."	51
<b>legatza</b> 'mozkorra'	"Jon ere behar baino gehiago itotzen da alkoholetan eta, demaseko <b>legatza</b> harrapatuta..."	112
<b>lepo egon</b> 'goraino bete'	"Trena jendez <b>lepo zegoen</b> ; hala ere, ipar afrikar bat –batek daki marokoarra, aljeriarra, tunisiarra ala mauritaniarra– doan konpartimenduan lekua..."	72
<b>likin</b> 'likitsa'	"Hamar minutu daramatzat eskuan itsatsi zaidan espermaren <b>likina</b> garbitzen."	24
<b>limuri</b> 'haragikorra'	"Hitz poetiko <b>limuriak</b> esaten dizkio..."	84
<b>limurtu</b> 'seduzitu'	"...Jon ekialdeko andrazkoen hoztasuna irribarre gozoz <b>limurtzen</b> saiatzen da."	57
<b>listu</b> 'lerdea'	"Segada batean, goitik behera zikindu gaituzte <b>listuz</b> ."	28
<b>liztor</b> 'erlearen antzeko intsektua'	"...edonila ere, ezinezkoa da atsedean hartzea hainbeste <b>liztor</b> eta eltxorekin."	40
<b>lo kuluxka</b> 'lotalditxoa'	"Logura gehiegi dugu eskulturetan kontzentratzeko, eta betaurreko beltzekin eserlekuetan jartzen gara <b>lo kuluxka</b> bat botatzeko."	33
<b>lurrin</b> 'perfumea'	"...komuneko atea ixtea ahazten baitzaie eta komuneko usainak eta <b>lurrinak</b> guregana heltzen baitira."	11
<b>malenkoniatsu</b> 'tristeziak bete'	"Uste dugu senarraren eta senitartekoen heriotzaz hitz egiten ari zaigula, negar-zotinka hasi baitzaigu <b>malenkoniatsu</b> ."	96
<b>maleziatsu</b> 'maltzurra'	"...'gero arte, gauean diskotekan elkar ikusiko dugu?' esaldi <b>maleziatsua</b> interpretatzen dugu."	56
<b>mela-mela</b> 'gutziz bustita'	" <b>Mela-mela</b> eta blai-blai, tren geltokian hartu dugu ostatu."	41
<b>menturan egon</b> 'esperoan egon'	"Atsedean egun zoragarri batzuen <b>menturan</b> gaude."	89
<b>mokadu</b> 'ahamena, ahokadatxoa'	"Jende gabeko herri trankil honetan <b>mokadu</b> bat jan ahal izateko, <i>fast food</i> txoko bateraino hiru kilometrotik gora ibili behar izan dugu."	21
<b>nazkante</b> 'nazkagarria'	"Afalordua etorri delakoisildu da boskote abeslari <b>nazkantea</b> . Hiz egiteari utzi gabe otartekoak jateko abilezia daukate azaburuek."	64
<b>neska katxarro</b> 'neska puska, erakargarria'	" <b>Neska katxarroak</b> dabilta kalean tiranteekin eta minigonekin."	22
<b>ñarrotu</b> 'itxia'	"Japoniarren begi itxi <b>ñarrotxuei</b> bekaizkeria diegu: japoniarrek Europako nahi beste museo bisita ditzakete..."	33
<b>oka egin</b> 'goitika egin'	"Gure lo egiteko bazterrean norbaitek <b>oka egin</b> du."	31
<b>oratu</b> 'heldu, agarratu'	"...tokatu zaidan kabinako lurzoruan semen arrastoak topatzen baititut, baita ateko eskutokia eskuarekin <b>oratzean</b> ere."	23
<b>orroka</b> 'alarauka'	"Bart koadrilako agur afaria gaupasan bukatu zenez, eta gau ajea eta buruko mina ari zaizkigunez <b>orroka</b> , trenean sartu eta lo egiteko irrikan gaude."	10
<b>otseme</b> 'urdanga'	"Lehen itzulian, beste berrogeiren bat neska gutxietsi gabe, nik beltzaran <b>otsemea</b> eta Jonek aingeru ilehoria fitxatu ditugu."	25
<b>otu</b> 'bururatu'	"Europako ipar muturreraino, Nordkaapperaino, iristea <b>otu</b> zaigu."	45
<b>ozta-ozta</b> 'juxtu-juxtua'	"Italiarrez inbaditutako ferrya harten dugu <b>ozta-ozta</b> ."	99
<b>pagotxa</b> 'ustekabeko zortea'	"...tren geltokietan maletak eta motxilak uzteko gordailuak existitzen dira! Hori <b>pagotxa</b> , hori!"	22





<b>patu</b> 'zoria'	"...urduritasunak kakaztuta zegoen. Salbazioa izan zitekeen norabaitera joateko aukera agortzen ari zen; bere <b>patua</b> jokaldi bakarrean jokatu..."	76
<b>petral</b> 'desatsegina'	"Hirugarren solairuko auzokide <b>petralari</b> postontzian sartzeko zoria ibili nauk..."	7
<b>pirritaka</b> 'txiribuelbaka, bilin-bolaka'	"...Jonek arreta galdu, lokatzetan irrist egin eta, bilinbolaka, 30 metro joan da <b>pirritaka</b> , harritzarrek gelditu duten arte."	81
<b>porru egin</b> 'birrinduta, leher eginda, nekatuta'	"Gare de Nordera <b>porru eginda</b> ailegatu gara."	15
<b>potolandi</b> 'handiago eta lodia'	"Bikinga <b>potolandi</b> batek bere literara igotzeko keinua egin digu."	31
<b>pragmatiko</b> 'praktikoa'	"Ezezkoa ihardesten diot, arrazoi <b>pragmatikoengatik</b> : Berlinen izanak garelako eta bertako abenturak ez zirelako gozoak izan..."	49
<b>profitatu</b> 'aprobetxatu, baliatu'	" <b>Profita</b> itzak istorioak eta oraindik geratzen zaian bizitza!"	8
<b>purrustada</b> 'errieta'	"Baina zer hizkuntzatan botako diogu <b>purrustada</b> ?"	74
<b>sos</b> 'dirua'	"Horretarako, uztailen udalekuetan begirale lanetan irabazitako <b>sosak</b> ditugu finantziazio iturri,"	9
<b>sufrikario</b> 'sufrimendua'	"Mingaina garretan eta izerdi <b>sufrikarioan</b> elikatzen gara. Egariak gaude, baina denda batean erosten dugun ura gaseosa da..."	56
<b>takian-potian</b> 'aldian-aldian'	"... <b>takian-potian</b> ardo botilatik edaten zuen baina, plantak eginez, ezpainak besterik ez zituen bustitzen..."	49
<b>tenore</b> 'garaia, sasoa'	"Geure buruak guztiz ez galtzeko, auzo gorria ezagutzeko <b>tenorea</b> da."	24
<b>tipustapast</b> 'bat-batean'	"Eta hala da, <b>tipustapast</b> , sekulako udaekaitza hasi baitu."	14
<b>total</b> 'tartamutua, hizketa trabatua'	"Bost aterpetxetara deitu dut eta nire ingeles <b>totalarekin</b> demaseko buruhausteak izan ditut nahi nuena aditzera emateko."	39
<b>tramankulu</b> 'tresna handia'	"Alkoholak eta barregarri geratzearen ikarak galarazten diote <b>tramankulua</b> altxatzea."	111
<b>transhumantzia</b> 'azienden lurralde aldaketa'	"Etxe-okupatzaileek oro har ez digute kasurik egiten; ohituta daude bisitarien <b>transhumantziara</b> ..."	30
<b>trikimailu</b> 'amarrua'	"...eta, agidanez, <b>trikimailuak</b> funtzionatzen digu."	11
<b>tronpatu</b> 'okertu'	" <b>Tronpatu</b> egin gara: txortan ari zen bikote bat zen, eta gizona atzetik datorkigu korrika."	116
<b>txepel</b> 'gatz bakoa, sosa'	"...harrerako neska <b>txepelak</b> (...) zentrotik urruti dagoen gazte-aterpetxe batean lekua topatu digu, telefonoz."	17
<b>uztartu</b> 'lotu'	"Jakin mina eta pena <b>uztartzen</b> dira."	76
<b>xahutu</b> 'gastatu'	"Hurrengo destinoan gaze-aterpetxe erdialdean bilatu behar dugu, horrelako parranda aukerak ezin ditugulako <b>xahutu</b> ."	52
<b>xarmagarri</b> 'liluragarria'	"Zoritzarrez, ilehori luze <b>xarmagarriek</b> ez dute beherantz so egiten eta ez dute gure tamainako bikote txikia aintzat hartzen."	20
<b>xendra</b> 'bidexka'	"...une batetik bestera estropezu egin eta muturrekoa hartzeko moduan, existitzen ez den <b>xendra</b> egiten ari gara."	81
<b>xera</b> 'begirunea, lotsa'	"Italiar zerbitzuak ez du ospe onik; <b>xera</b> gabe tratatzen zaituztelako eta..."	103
<b>xixtrin</b> 'eskasa'	"faktura ekartzeko orduan, pizzen aurretik atera dizkigun oliba <b>xixtrinengatik</b> lapurreta egin digu..."	103



<b>xuxurlatu</b> 'ahapeka esan'	"...Joni jazotakoa <b>xuxurlatu</b> eta korrika batean noa gazte aterpetxeko gelara galtzontziloak aldatzera."	83
<b>zakurraren putza!</b> 'kaka zaharra'	" <b>Zakurraren putza!</b> Ezinbestean, korridorean kuzkurtu eta komun ondoan jartzen dugu kanpamendua."	11
<b>zantar</b> 'nazkagarria'	"Oraingoan, asmo <b>zantar</b> berbera duten putre-mutilez inguratuta dagoen neska pertxentarengana inguratu da..."	114
<b>zatar</b> 'itsusia'	"Japoniar bat oso ederra da, eta bestea, betaurrekoduna, oso <b>zatarra</b> ; beraz, azkar zehazten dugu gure keinu, zeinu eta imintzioen hartzaile nagusia."	47
<b>zer gerta ere</b> 'badaezpadan'	" <b>Zer gerta ere</b> , bungalowko atea kisketaz ixten dugu eta bungalow ondoan soka bati kanpai txiki bat lotzen diogu..."	62
<b>zimiko egin</b> 'atzimur egin, atzamarka egin'	"Atzera begiratzean, nostalgia nagusitu zitzaidan, eta, Iker bidaidea gogoan, hunkituta, bihotzak <b>zimiko egin</b> zidan malkotan."	123
<b>zirkinik egin ez</b> 'mugitu ere ez'	"...eta hamaika ahalegin egin behar ditu nire gainera bilin-bolaka ez erortzeko. Ni behe-behean nago, <b>zirkinik egin</b> gabe..."	69
<b>zirriparra hutsal</b> 'alferreko eztabaida'	"Boskoteak lehen orduko <b>zirriparra hutsala</b> bukatu duenean, ezin ezpainak lotu eta berehalakoan abesten hasi dira..."	64
<b>zoko-moko</b> 'okoluak, txokoak'	"Bruselako <b>zoko-moko</b> guztiak zeharkatu ditugu."	20
<b>zurbil</b> 'kolore gabeko aurpegia'	"Jon ustekabeaz <b>zurbil</b> dago, are eta zurbilago ikusleonek barre-argaren aitzinean..."	111